

KIROLGI

Talentua pizten

KIROL ARGAZKIEN

LEHIAKET



PREMIO
2025
SARIA

KIROLGI
FUNDAZIOA



LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Antolatzailea:

Kirolgi Fundazioa, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearekin lankidetzan.

2. Gaia:

2.1. Orokorra: "Gipuzkoako kirola" bere arlo guztietan.

2.2. Espezifikoa: "Emakumezkoen Kirola".

3. Lehiakideak:

18 urtetik gorako afizionatuak edo profesionalak.

4. Lanak:

Egile batek gehienez ere lau argazki aurkez ditzake atal bakoitzeko.

5. Atalak:

Bi atal izango ditu lehiaketak: A. Kolore bakarreko papera. B. Koloretako papera.

6. Aurkezpena:

Neurri hauek izan behar dute argazki-paperekin: 30x40 cm-koak. Irudiaren neurria librea izango da, betiere neurri horien barruan. Oinarriko ukituak soilik onartuko dira, hau da, kontrastea, disdria edo kolorea doitzeko. Ez

da inolaz ere onartuko jatorrizko irudien ez zegoen elementurik sartzea. Horregatik, epaimahaiak badauka, hala balegokio, jatorrizko fitxategia eskatzea.

Inolako euskarriaren gainean jarri gabe eta gasturik ordaindu beharrik gabe bidaliko dira lanak helbide honetara: Kirolgi Fundazioa (Kirol Etxea - Anoeta Estadioa), Anoeta pasealekua 5, 20014 Donostia - San Sebastian (astelehenetik ostiralera, 08:30etik 20:30era irikita). Kartazalaren gainean hau jarri behar da: "Kirolgi Fundazioaren XXIV. Kirol Argazki Lehiaketa".

7. Lanen identifikazioa:

Argazki bakoitzaren atzean bakar-bakarrik izenburua edo leloa jarriko da. Partaide bakoitzak kaxa/kartazal/bilgarri bat aurkeztuko du, barruan argazkiak eta **kartazal bakar bat** dituen; barruko kartazalaren kanpoaldean aurkeztutako argazki guztien izenburuak edo leloak idatziko dira, eta barruan lehiakidearen datuak: **izen-deiturak, NA, helbide osoa, telefono zenbakia eta e-mail.**

8. Argazkien jabetza eta erabilera:

Epaia argitaratuta, irabazleek Kirolgi Fundazioa bidaliko dute argazki saridunaren erresoluzio handiko kopia digitala. Kirolgi Fundazioa egingo da saritutako argazkien jabe, bai eta kopiak egin eta hedatzearen jabe ere. Kirolgi Fundazioari utzitako eskubideak harenak bakarrik izango dira, ez beste inorenak. Eskubide horiek uztea truke egileak ezingo du lehiaketako saria beste ordainsaririk eskatu. Halere, egilearen izena agertuko da argazkian, egilearen eskubideei buruzko indarrean dagoen araudiaren arabera.

Hautatu bai baina saririk jaso ez duten eta Kirolgi Fundazioarentzat publizitatea egite aldera interesgarri diren argazkien egileek Kirolgi Fundazioari baimena emango diote beren lanak edozein lekutan argitaratzeko, bi urteko epean, lehiaketako epaia ematen den egunetik kontatzen hasita. Baimen hori ematearen truke egileak 60 euroko ordainsaria jasoko du argazki bakoitzeko.

Lehiakideen ardura izango da beste inoren esku ez uztea eskubideak, eta irudi eskubideetatik letorkeen erreklamazio oro.

9. Sariak:

Atal bakoitzean hiruna sari emango dira tematika orokorrean, eta "GIPUZKOA KIROLAK" sari bat (kolore bakarra edo koloretakoa) "Emakumezkoen Kirola" gai espezifikokoan barnean.

A. Kolore bakarreko paperean aurkeztutako argazkiak:

1. saria:

500€ eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkartea garaikurra.

2. saria:

250€ eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkartea garaikurra.

3. saria:

150€ eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkartea garaikurra.

B. Koloretako paperean aurkeztutako argazkiak:

1. saria:

500€ eta Kirolgi Fundazioa garaikurra.

2. saria:

250€ eta Kirolgi Fundazioa garaikurra.

3. saria:

150€ eta Kirolgi Fundazioa garaikurra.

C. "GIPUZKOA KIROLAK" saria ("Emakumezkoen Kirola")

Saria:

500 € eta Gipuzkoako Foru Aldundia garaikurra.

Kirolgi Fundazioak eskubidea izango du edozein sari eman gabe uzteko. Sari bakarra jaso ahal izango dute lehiakideek.

10. Batzorde Hautatzailea eta Epaimahaiak:

Kirolgi Fundazioa eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko ordezkariak izango dira epaile. Epaimahaiaren deliberazioak isilpean gordeko dira eta epaia aldezina izango da.

11. Egutegia:

Lanak aurkezteko epea:

2025eko azaroaren 28a.

Epaimahaiaren epaia:

2025eko abenduak 17.

Sariak:

2026ko urtarrilaren 15ean arratsaldeko 19:00etan Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen egoitzan banatuko dira.

Hautatutako zenbait argazkiren erakusketa:

2026ko urtarrilaren 9tik - otsailaren 4arte, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartean.

Lanak itzultzea:

Saritu gabeko argazkiak aurkeztu diren leku eta ordutegi berean jaso beharko dira, erakusketa amaitu ondoren, **2026ko martxoaren 2tik aurrera eta martxoaren 31 baino lehen, eta gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko da posta elektronikoz, fundazioa@kirolgi.org helbidean.** Epe hori igarota, **jaso gabeko argazkiak** Kirolgi Fundazioaren esku geratuko dira nahi duen bezala erabiltzeko.

12. Argazkiak galtzea edo lapurtzea:

Fundazioak hitz ematen du argazkiak ondo zainduko dituela, baina ez da haren ardura izango bidean edo erakusketa egiten den bitartean galtzen edo hondatzen badira, edo lapurtzen badituzte. Partaideek hartuko dute beren gain aseguruia.

13. Oinarriak interpretatzea eta aurre-

ikusitako gabeko gorabeherak ebaztea: Kirolgi Fundazioak erabakiko du oinarri hauek jaso gabeko gorabeheren aurrean zer egin. Lehiaketara aurkeztu diren guztiek onartu beharko dituzte oinarri hauek.



GIPUZKOAKO ARGAZKILARI ELKARTEA
SOCIEDAD FOTOGRAFICA DE GIPUZKOA

